




BMF-FVM – 2020 - HAUTESKUNDEAK


Gaur, 2020ko irailaren 28an, 19: 30ean, Bilboko Kirol Etxearen eraikinean, Hauteskunde Batzordearen hirugarren bilera egin da, BMF-FVM 2020ko hauteskundeak ardatz.

Bertaratutakoak:


Roberto Jubeto Gonzalez NAN: 30555529-Y, **Sociedad Montañera Encartaciones** ordezkatur.

Jose Ignacio Diez Marín NAN: 22732150-P, **Grupo Alpino Turista de Barakaldo** ordezkatur.

Aitor Arnedo González NAN: 30627199-P, **Ganguren Mendi Taldea** ordezkatur.


Víctor Manuel Vivar Moreno, NAN: 14691018-K, BMF-ko jarduneko presidentea, Hauteskunde Batzordeko laguntzaile bezala

JORRATUTAKO GAIAK ETA ADOSTUTAKO AKORDIOAK:

- Hauteskunde-egutegian ezarritako epeetan irailaren 28an argitaratu ziren Federazioaren estamentuetarako hautagaitzen behin-behineko zerrendei buruzko balizko aurkaratzei edo akatsak zuzentzeko errekerimenduei buruzko idazki edo jakinarazpenik ez dela jaso baieztatu da.
- Horregatik, zerrenda horiek, hasiera batean, behin betiko hautagaitza bihurtzen dira, eta Hauteskunde Batzorde honek onartzen ditu.
- Hautagaitza horiei dagokienez, estamentu bakoitzean aurkeztutako eta onartutako hautagaien kopurua aztertu da. Teknikarien eta epaileen estamentuen barruan, hauteskunde-arauen arabera finkatutako kide-kopurua zortzi eta bi bada, hurrenez hurren (guztira 10), hautagai-kopuru bera aurkeztu da, eta, beraz, ez da beharrezkoa hauteskunde-araudiaren araberrako bozketarik egitea.
- Klubuen estamentuko kideen kopurua itxita dagoela kontuan hartuta, ezarritako baldintzak betetzen dituzten klub guztiak barne hartzen ditu 83 zenbakiak (joan den irailaren 28ko akta).



- Bestalde, **kirolarien estamenturako** aurkeztutako eta onartutako hautagai-zerrendak **12 dira**, hau da, esleitutako ordezkari-kopurua baino bat gehiago. Aurreko datuetan oinarrituta, eta **kirolarien estamentuetan** horiei esleitutako ordezkarien kopurua **11** denez, Hauteskunde Batzorde honek estamentu horretarako bozketak deitzea erabaki du. Hauteskunde-egutegian ezarritakoaren arabera egingo dira, **urriaren 9an, 19: 00etatik 21: 00etara, federazioaren egoitzan. (Beheko solairuko areto nagusian).**

- Ondorioz, legegintzaldi berriaren indarraldian, hau da, hurrengo urte olinpikora arte Federazioaren barruan egiten diren hauteskunde-prozesu guztietan, Hauteskunde Mahaiko kideak hautatuko dira.

- Horretarako, Hauteskunde Batzorde honek zozketa hutsaren bidez, erroldan sartuta dauden eta arau eta erregelamendu aplikagarrietan jasotako bateraezintasunak ez dituzten hautesleen artean izendatuko ditu.

- Zozketa egin ondoren, emaitza hauek lortu dira:

HAUTESKUNDE MAHAIKO KIDEAK:

Kluben eta kirol-elkarteen estamentuaren izenean: ARROETA MENDI TALDEA

Kirolarien estamentuaren izenean: LUIS JAVIER RODRIGUEZ GONZALEZ

Teknikarien eta Epailen estamentuaren izenean: BITTOR GOROSABEL AGIRRESAKONA

ORDEZKO KIDEAK:

Kluben eta kirol-elkarteen estamentuaren izenean: MUNARRIKOLANDA MENDI TALDEA

Kirolarien estamentuaren izenean: LOREA TOTORIKA VAL

Teknikarien eta Epailen estamentuaren izenean: IÑAKI ANTON ZUBIAGA

- Federazioari eskatzen zaio hautatutako kideei izendapen horren berri eman diezaiela, agintaldia betetzea derrigorrezkoa dela jakinarazten.



Bizkaiko Mendizale Federazioa
Federación Vizcaína de Montaña

- Hauteskunde Batzordea prozesu honetan inplikaturako alderdi guztien eskura egongo da, egoki irizitako argibideak emateko.

Bilbon, 2020ko urriaren 5ean

Hauteskunde Batzordea

PRESIDENTE

SECRETARIO

VOCAL